

AZERIYA ETA PULPOA.<sup>1</sup>

Gosiak zebillen beñ  
 azeri šatar bat,  
 eziñ billaturikan  
 jan-kairik beretzat;  
 zulo eta bazterrak  
 miratuagatik,  
 eziñ arkitu zuben  
 iñon jatekorik;  
 eta plakiz betea  
 nairik zerbait era,  
 etsi-etsiya joan zan  
 arroka tartera;  
 zeñak ikusirikan  
 zangurru asko an,  
 asi zan arrapatzen  
 zezazkiyen an jan;  
 bañan bati kolpia  
 bota ordurako,  
 beste asko gordetzen  
 ziran punturako.  
 Alaz guztiz bertan an  
 zai egoten baitzan,  
 ikusi nairik iñor  
 irtetzen ote zan.  
 Uste gabian bere

isatsa urpian  
 sartu zuben, eta *¡rau!*  
 pulpoak kolpian  
 guarrak isatsetikan  
 zizkan prest eatzi  
 zeñak sendo loturik  
 nai etziyon utzi;  
 eta ura goratzen  
 nola baizan ari,  
 eta pulpoak nai ez  
 utzi isatsari;  
 aboraño zitzayon  
 ura inguratu,  
 zeña zan arkaitzetan  
 ito-ta gelditu.

. . . . .  
 Zenbait gizoni aušen  
 zayote gertatzen,  
 zerbait nairikan era  
 ez danian sortzen;  
 biar ez dan lekura  
 prest dirade sartzen,  
 zeñak diran askotan  
 kaltian geratzen.

JOSÉ ARTOLA.

(1) Fábula, premiada con *mencion honorífica* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1888. (Véase pág. 567 del tomo XIX.)